Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO
INGENIARITZA ESKOLA

ESCUELA
DE INGENIERÍA DE BILBAO

# MATRIKULA EGITEKO GIDALIBURUA

# TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAREN INGENIARITZAKO GRADUA

25/26 ikasturteko ikasle berriak

V1.1
2025eko ekaina

***1 Zertarako dokumentu hau?*** ......................................*¡Error! Marcador no definido.*

***2 Nola egin behar dut matrikula aplikazioan?*** ............*¡Error! Marcador no definido.*

**2.1 Datu pertsonalak eta ekonomikoak bete** .................. ¡Error! Marcador no definido.

**2.2 Matrikularako irakasgaiak aukeratu** .......................... ¡Error! Marcador no definido.

**2.2.1. GAZTELANIAZKO TALDEETAN MATRIKULATU ..................................................5**

**2.2.2. EUSKARAZKO TALDEETAN MATRIKULATU ....................................................10**

# 1 ZERTARAKO DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honek Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduko lehen matrikularen prozesuan lagunduko dizu.

Hasi baino lehen jakinarazi nahi dizugu Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua bertsio berri batean sartzeko prozesuan dagoela datorren ikasturtean. Bertsio berri horrek oraingo ibilbide eta aukera guztiak mantentzeaz gain, ikasgaien antolamendua hobetuko du eta telekomunikazioen esparruko azken teknologien praktikak eta edukiak integratuko ditu.

Gradu berri hau 26/27 ikasturtean hasiko da, hau da zure bigarren urtean. Aldaketa horrek eraginik izan ez dezan, lehen maila pertsonalizatua diseinatu dugu, egungo gradutik bertsio berrira zuzenean salto egiteko eta hurrengo urteko bigarren mailarekin zuzenean lotzeko.

Gauzak honela, zure lehen urtean Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduan matrikulatu behar dituzun irakasgaiak honako hauek dira:

| **Matikulatu beharreko irakasgaiak** | **Maila** |
|---|---|
| Kalkulua I | 1 |
| Aljebra | 1 |
| Fisika | 1 |
| Zirkuituen Analisia | 1 |
| Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | 1 |
| Kalkulua II | 1 |
| Ekonomia | 1 |
| Programazioaren Oinarriak | 2 |
| Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | 2 |

Azken bi irakasgaiak bigarren mailakoak eta arratsaldekoak badira ere, lehen mailako ordutegian sartuko dira ikasle berrientzat propio. Taulako irakasgai guztiak ordutegi bateragarria eta goizekoa izateko diseinatu dira (nahiz eta aplikazioan ezin den aldatu bigarren mailako irakasgaien ordutegia eta arratsaldekoak balira bezala agertu diren)

Ordutegia WebUntis bidez kontsulta dezakezue 2025-26 ikasturtea eta GTELEX101 taldea aukeratuz:
https://hektor.webuntis.com/WebUntis/?school=EHU#/basic/timetablePublic

# 2 NOLA EGIN BEHAR DUT MATRIKULA APLIKAZIOAN?

## 2.1 DATU PERTSONALAK ETA EKONOMIKOAK BETE

Matrikula egiteko aplikazioan sartzen zarenean zure datu pertsonalak egiaztatzeko eskatuko dizu:




"Jarraitu" sakatu ondoren, sistemak zure harremanetarako datuak (telefonoa eta posta elektronikoa) sartzeko aukera emango dizu. Datuen tratamenduari dagokiona ere irakurri eta onartu beharko duzu.




"Jarraitu" sakatu ondoren, sistemak datu estatistiko batzuk eskatuko dizkizu:




"Jarraitu" sakatu ondoren matrikulan murrizketak eragiten dituzten egoerei buruz galdetuko dizu sistemak




Azkenik,"Jarraitu" sakatu ondoren matrikula ordaintzeko datu ekonomikoak eskatuko dizkizu.



## 2.2 MATRIKULARAKO IRAKASGAIAK AUKERATU

Matrikulatuko zaren irakasgaiak aukeratu aurretik sistemak gradua zein hizkuntzatan ikasi nahi duzun eskatuko dizu: gaztelaniaz ala euskaraz




**2.2.1 atalean gaztelaniazko taldeen kasua aztertuko da, eta 2.2.2 atalean euskarazko taldeena.**

### 2.2.1. GAZTELANIAZKO TALDEETAN MATRIKULATU

Gaztelania aukeratu ondoren, sakatu “Jarraitu”

Urrats hori eman ondoren ikasgaiak aukeratzeko pantailan egongo zara. Ikusiko duzu 4 mailak erdialdean agertzen direla.




Zure lehen matrikularako, eta salbuespen gisa, Ikasketa Plan berrira egokitzeko ikasturte honetarako irakasgai multzo hau aukeratu behar duzu.

| Matrikulatu beharreko irakasgaiak | Maila |
|---|---|
| Kalkulua I | 1 |
| Aljebra | 1 |
| Fisika | 1 |
| Zirkuituen Analisia | 1 |
| Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | 1 |

| | |
|---|---|
| Kalkulua II | 1 |
| Ekonomia | 1 |
| Programazioaren Oinarriak | 2 |
| Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | 2 |

Hauexek dira eman beharreko urratsak:

1- Hautatu lehen maila saguarekin: **Jarri sagua "1. maila" testuaren gainean urdin jarri arte eta klik egin**. Eskuinean panel berri bat irekiko da taldea aukeratuta.




2- **01 taldea hautatu** (gaztelania-goizez) laukiaren gainean klik eginez.




3- Hautatu bigarren maila saguarekin: **jarri sagua "2. Maila" testuaren gainean urdin jarri arte eta klik egin.** Eskuinean panel berri bat zabalduko da taldea aukeratuta.




**4.- Hautatu 16. Taldea (gaztelania-arratsaldez)** laukian klik eginez. **Ez kezkatu arratsaldekoa dela jartzen badu, ordutegiak aldatu egin baitira adieraziko dizkizugun irakasgaietarako eta goizekoak izango dira.**

WebUntis-en egiaztatu ahal duzu, 2025-26 ikasturtea eta GTELEX101 taldea aukeratuz:

https://hektor.webuntis.com/WebUntis/?school=EHU#/basic/timetablePublic




**5.- Behin bi mailak aukeratuta, sakatu "Erakutsi Irakasgaiak" erdiko panelean**. Sistemak aukeratutako lehen eta bigarren mailako irakasgai guztiak erakutsiko ditu.




6.- **Baina zu 60 kreditutan baino ez zara matrikulatu behar, eta lehen aipatutako irakasgaietan**. Horretarako irakasgai hauek baino ez aukeratu:

| **Matrikulatzeko irakasgaia** | **Maila** | **Iraupena** | **Taldea** | **Kredituak** |
|---|---|---|---|---|
| Kalkulua I | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Aljebra | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Fisika | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Zirkuituen Analisia | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Kalkulua II | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Ekonomia | 1 | Lauhilekoa | 01 Gaztelania-Goizez | 6 |
| Programazioaren oinarriak | 2 | Urtekoa | 16B Gaztelania-Arratsaldez | 9 |
| Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | 2 | Urtekoa | 16B Gaztelania-Arratsaldez | 9 |
| | | | Kredituak guztira | 60 |

Pantailan matrikula hau ikusi behar duzu:

| | Irakasgai honetan: | Mota | Maila | Iraupena | Taldea | Kredituak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ☐ | Estatistika | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Aljebra | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Ekonomia | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Fisika | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Kalkulua I | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Kalkulua II | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Oinarrizko Elektronika | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Seinaleen Prozesatzea | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Zirkuituen Analisia | D | 1 | C | 01 Gaztelania-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Matematika Aurreratua | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Fisika Aurreratua | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Elektronika Digitala | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 7,50 |
| ☑ | Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | O | 2 | A | 16B Gaztelania-Arratsaldez | 9,00 |
| ☐ | Komunikazioaren Teoria | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Ingurune Banatuetako Programazioa | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 6,00 |
| ☐ | Eremu Elektromagnetikoak | O | 2 | C | 16 Gaztelania-Arratsaldez | 6,00 |
| ☑ | Programazioaren Oinarriak | D | 2 | C | 16B Gaztelania-Arratsaldez | 9,00 |

**7.-Ziurtatu "Programazioaren Oinarriak" eta "Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura" irakasgaietan "16B Gaztelania-Arratsaldez" taldea aukeratu duzula menu zabalgarrian. Izena gorabehera, talde berezia da, goizez emango da eta bateragarria izango da beste irakasgaiekin.**

1- "Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak" irakasgaia (taldearen zutabean (*) bat duena) gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen da. Menu zabalgarrian nahi duzun taldean aukeratu behar duzu.




"Amaitu Hautapena" sakatuta, aplikazioaren azken fasean sartuko zara, eta matrikula berrikusi eta amaitu ahal izango duzu.

## 2.2.2. EUSKARAZKO TALDEETAN MATRIKULATU

. **Atal honetan EUSKARAZKO taldeen kasua aztertuko da (Aurreko atalak gaztelaniazko taldeak aztertu ditu**). Hizkuntza hautatuta, sakatu "Jarraitu"




Eta irakasgaiak aukeratzeko pantailara pasako zara. Bertan, erdialdean 4 mailak ikusiko dituzu.




Zure lehen matrikularako, eta salbuespen gisa, ikasturte honetan graduko ikasketa plan berrira egokitzeko irakasgai multzo hau aukeratu behar duzu:

| Matrikulatzeko irakasgaia | Maila |
|---|---|
| Kalkulua I | 1 |
| Aljebra | 1 |
| Fisika | 1 |
| Zirkuituen Analisia | 1 |
| Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | 1 |
| Kalkulua II | 1 |
| Ekonomia | 1 |
| Programazioaren Oinarriak | 2 |
| Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | 2 |

Matrikula formalizatzeko honako urrats hauek eman behar dituzu:

2- Hautatu lehenengo maila saguarekin: **jarri sagua "1. maila" testuaren gainean, urdin jarri arte eta klik egin.** Eskuinean panel berri bat irekiko da, taldea aukeratuta.




3- **Hautatu 31 taldea** (euskaraz goizez), laukiaren gainean klik eginez.




4- Hautatu 2. maila saguarekin: **Jarri sagua "2.maila" testuaren gainean, urdin jarri arte eta klik egin.** Eskuinean panel berri bat irekiko da, taldea aukeratuta.



5- **Hautatu 46. taldea** (euskara arratsaldez) laukian klik eginez. **<u>Ez kezkatu arratsaldeko dela jartzen badu, ordutegiak aldatu egin baitira adieraziko dizkizugun irakasgaietarako, eta goizekoak izango dira.</u>**

WebUntis-en egiazta dezakezu 2025-26 ikasturtea eta GTELEX131 taldea hautatuz

https://hektor.webuntis.com/WebUntis/?school=EHU#/basic/timetablePublic




6- **Behin bi mailak aukeratuta, sakatu "Erakutsi irakasgaiak" erdiko panelean.** Sistemak aukeratutako lehen eta bigarren mailako irakasgai guztiak erakutsiko ditu.




7- **Baina zu 60 kreditutan baino ez zara matrikulatu behar**, **eta lehen aipatutako irakasgaietan**. Horretarako irakasgai hauen baino ez dituzu hautatu behar.

| Matrikulatzeko irakasgaia | Maila | Iraupena | Taldea | Kredituak |
|---|---|---|---|---|
| Kalkulua I | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Aljebra | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Fisika | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Zirkuituen Analisia | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Kalkulua II | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Ekonomia | 1 | Lauhilekoa | 31 Euskera-Goizez | 6 |
| Programazioaren Oinarriak | 2 | Urtekoa | 46B Euskera-Arratsaldez | 9 |
| Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | 2 | Urtekoa | 46B Euskera-Arratsaldez | 9 |
| | | | Kredituak guztira | 60 |

Pantailan matrikula hau ikusi behar duzu:

| | Irakasgai honetan: | Mota | Maila | Iraupena | Taldea | Kredituak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ☐ | Estatistika | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Aljebra | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Ekonomia | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Fisika | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Kalkulua I | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Kalkulua II | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Oinarrizko Elektronika | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Seinaleen Prozesatzea | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☑ | Zirkuituen Analisia | D | 1 | C | 31 Euskara-Goizez | 6,00 |
| ☐ | Matematika Aurreratua | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Fisika Aurreratua | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Elektronika Digitala | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 7,50 |
| ☑ | Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura | O | 2 | A | 46B Euskera- Arratsaldez | 9,00 |
| ☐ | Komunikazioaren Teoria | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 7,50 |
| ☐ | Ingurune Banatuetako Programazioa | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 6,00 |
| ☐ | Eremu Elektromagnetikoak | O | 2 | C | 46 Euskara-Arratsaldez | 6,00 |
| ☑ | Programazioaren Oinarriak | D | 2 | C | 46B Euskera- Arratsaldez | 9,00 |

8- **Ziurtatu "Programazioaren Oinarriak" eta "Telekomunikazio Sareen eta Zerbitzuen Arkitektura" irakasgaietan "46B euskara-arratsaldez" aukeratu duzula menu zabalgarrian. Izena gorabehera, talde berezia da eta goizez emango da, eta gainerako irakasgaiekin bateragarria izango da.**




9- "Gailu eta Zirkuitu Elektronikoak" irakasgaia (taldearen zutabean (*) bat duena) euskaraz eta ingelesez eskaintzen da. Menu zabalgarrian nahi duzun taldea aukeratu behar duzu.




"Amaitu Hautapena" sakatuta, aplikazioaren azken fasean sartuko zara, eta matrikula berrikusi eta amaitu ahal izango duzu.